

Osasuna

JABIER AGIRRE

Gripea: izuaren ala iruzurraren mende gaude?

GRIPEA URTEROKO KONTUA DA. Aspaldiko epidemiak alde batera utzita –1918ko epidemia handiak, esaterako, 50-100 milioi hildako eragin zituen–, agintari sanitarioek nahiko ondo kontrolatzen dute gaitza, eta gaur egun dauden baliabideekin eta txertaketa-kanpainekin, aparteko dramatismoik gabe joan dira azken hamarkadetakoko gripe-sasoiak. Salbuespena 2009. urtea izan zen.

Gripea hainbat motatako *Influenza* birusek eragindako gaixotasuna da. Kasu gehienetan prozesu automugatu da, ondorioz gabekoa. A birusa da gaixotasunik larriena sor dezakeena, eta betidanik izurriteei lotua egon dena. Birusen osaera genetikoan gertatzen diren etengabe-ko aldaketek zepa berriak eratzen dituzte, eta noizean behin, zepa baten aurrean populazioak immunitate txikia duenean, pandemia sortzen da. Hala gertatu zen 2009an.

2009/10 denboraldiko gripe pandemikoa Ameriketako sortutako birusak eragin zuen. Hasierako uhina udaberria eta uda bitartean iritsi zen, baina kasu gehien udazkenean eta neguan izan zen. 2009ko apiriletik azarora, H1N1 birusaren eraginez Espainiako Estatuan 100 hildako baino gehiago izan ziren arren –ez daukat Euskal Herriko zifrarik–, garai bateko izurriteekin alderatuz gero moderatutzat jo dezakegu 2009koa.

Hego Euskal Herrian, aurreneko kasua, Mexikotik etorritako pertsona bat, apirilaren 25ean detektatu zen. Hurrengo kasuak ere Ameriketatik etorritako pertsonengan gerta-



tu ziren eta pixkanaka bertakoen artean transmititzen hasi zen birusa. EAEko datuen arabera, epidemiaren gailurra urriko azken astean izan zen; hurrengo asteetan intzidentzia berriro jaitsi zen epidemia-mailatik behera.

Munduan, birusa abiadura handian zabaldu zen eta zortzi astetan 120 herrialdetara zabaldu zen. Pandemia garaian AH1N1-ek beste birus guztiak ordezkatu zituen, baina 2010eko abuzturako herrialde askotan beste birus batzuen agerpena deklaratu zen hasi ziren, normalean gertatzen den moduan. Osasunaren Munduko Erakundeak horrenbesteko espantua eragindako pandemiaren bukaera deklaratu zuen 2010eko abuztuaren 10ean.

Zergatik izan zuen gripe-epidemiak inpaktu txikiagoa Europan, munduko beste eskualde batzuetan baino? Batetik, 50 urtetik gorako populazioak bazuelako birus berriaren aurrean nolabaiteko immunitatea, azken ehun urteotan izandako beste birus batzuei esker. Bestetik, Europa azkenetakoa izan zelako lurralde industrializatuaren izurritea

jasaten; horri esker beste herrialde batzuetan izandako esperientziak baliatu eta pandemiarako prestatutako protokoloak berraztertze-ko aukera izan zuen.

Horraino 2009-2010 denboraldian gertatutakoaren kontakizuna, datu ofizial eta guzti. Non geratu dira komunikabideetan zabaldu ziren alarma-dei haiek? Non daude erosi ondoren erabili gabe geratu diren txertoak? Milaka dosi eskuratu zituzten osasunerakundeek, biltegiak mukurru betetzera, gero ezertarako balio ez eta herrialde txiroetara bidali omen zirenak. Eta maskaratxoak? Milioika erosi ziren, adituek hasieran erakutsitako zalantzak, eta ondorioz komunikabideek barreiatutako mezu alarmistek jendea eragindako kezka baretzeko. Hemerrotekari begiratzea aski da horretaz jabetzeko, “aurreikusten zen bezain hilgarria ez den birus baten gainean sortutako gehiegizko alarma”, edo “A gripea, iruzur handia” bezalakoak irakurri ahal izan baikenituen.

Medikuoi egozten diguten korporatibismoak aparte, eta gripe-birusaren aldaketa naturalak konspirazio baten moduan azaldu nahi lituzketen teoria txatxuak alboratuta, alarma zabaltzea baino askoz ere mesedegarriagoa litzateke herritarrei informazio kontrastatua eta gardena helaraztea, eta erakundeen ahalegina benetan eraginkorrak diren baliabideetara bideratzea, neurri prebentibo gisa ezin baliagarriagoak diren txertaketa-kanpainetan bereziki.



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16